

# ehbildu

**Getxo**  
*informatzen*

2023ko azaroa

## Alokairuaren prezioak mugatzeta, gertuago

### Objetivo: limitar los precios del alquiler

Getxo «tentsio handiko gune» izendatzea onartu du Udalak, EH Bilduren proposamenez.

Aprobada la propuesta de EH Bildu para el estudio que permita declarar a Getxo como «zona tensionada» de vivienda.

¡DERECHO A TECHO  
EN GETXO!  
ETXEBIZITZA ESKUBIDEA  
BERMATU!

ehbildu

**Kezka Artaza  
inguruan**

Preocupación por el  
túnel subfluvial

**Getxobusa abian  
jartzea, onartuta**

El *Getxobus*, cada  
vez más cerca

**Aukera berriak  
Getxoko Udalean**

Nuevas oportunidades  
en el Ayuntamiento

# Getxo «tentsio handiko gune» izendatzeko aukera ireki da

**Etxebizitza da, zalantzarik gabe, gure herriak duen arazo larrietako bat, eta berebizikoa da neurriak hartzea lehenbailehen, espekulazio eta eraikuntza masibotik kanpo.**

Legintzaldi berria akordio zabal batekin hasi da Getxon, etxebizitzaren arloan. EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen iraileko osoko bilkuran txosten bat eskatuz, Getxoko auzo batzuk tentsio handiko gune modura izendatzeko aukera dagoen aztertzeko, Etxebizitza Lege berrian oinarrituz. Horrela, alokairuaren prezioak mugatzeko lehenengo urratsak eman ahalko genituzke, kontuan hartuta gure herrian Euskal Herriko preziorik garestienetakoak ditugula. Gure proposamena gehiengo absolutuz onartu zen (PP bakarrik geratu zen akordiotik kanpo) eta, beraz, ikerketa egingo da aztertzeko ea Getxok edo Getxoko auzo batzuek baldintzak betetzen dituzten tentsionatutako gune izendatzeko.

EH Bildutik horretan jarraituko dugu legegintzaldi berri honetan ere, etxebizitza eskubidea gauzatzeko asmoz, modu integralean: udal jabetzako alokairu sozialari erabateko lehen tasuna eman, hutsik dauden etxebizitza hutsak mobilizatu (900 baino gehiago) pisu turistikoak mugatu, Algortako kuartelaren lurak herriarentzat berreskuratu, diru-laguntzak handitu... Gazteek gure herritik alde egitea ekidin behar dugu lehenbailehen, baina espekulazioa sustatu barik.

## Objetivo: limitar los precios del alquiler

**Aprobada la propuesta de EH Bildu para el estudio que permita declarar a Getxo como «zona tensionada» de vivienda.**

Una nueva legislatura ha comenzado con un amplio acuerdo en Getxo en materia de vivienda. A propuesta de EH Bildu, el pleno aprobó una moción en la que se propone realizar un estudio para declarar zonas o barrios de Getxo como «zonas tensionadas». De este modo, basándose en la nueva Ley de Vivienda, se podrían dar los primeros pasos para limitar los precios de los alquileres de vivienda, teniendo en cuenta que en Getxo tenemos uno de los precios más altos de toda Euskal Herria. Nuestra propuesta fue aprobada por mayoría absoluta (tan solo el PP se quedó fuera).

El acceso a la vivienda es, sin duda, uno de los problemas más graves a los que se enfrenta nuestro municipio, y resulta indispensable tomar medidas lo antes posible, lejos de las recetas de la especulación y la construcción masiva.

Desde EH Bildu seguiremos realizando propuestas también en esta nueva legislatura, tratando el tema de la vivienda de forma integral: prioridad absoluta para las viviendas de alquiler social de propiedad municipal, movilizar la vivienda vacía (más de 900 en Getxo), limitar los pisos turísticos, recuperar los terrenos del cuartel de la Guardia Civil para viviendas sociales, etc.

## Palestinarekin elkartasunez



Euskal Herriko eta munduko hainbat txokotan bezala, Getxon ere kalera irten gara Palestinako herriari elkartasuna adierazi eta Israelen politika genozidak salatzen. Argi diogu: ezinbestekoa da NBERen erresoluzioak betetzea, okupazioa amaitzea eta Palestina estatu modura aitortzea, gatazkaren konponbidea lortzeko. Sarraskia gelditu, Palestina askatu!

### Solidaridad con Palestina

A igual que en varios lugares del mundo y de Euskal Herria, en Getxo también hemos salido a la calle para mostrar nuestra solidaridad con Palestina y denunciar las políticas genocidas de Israel. Para alcanzar la resolución del conflicto se deben cumplir las resoluciones de la ONU, poner fin a la ocupación israelí y reconocer el estado palestino. ¡Libertad para Palestina!



# Kezka Artaza inguruan itsasadar azpiko tunelaren ondorioengatik

**Trafikoa eta zarata handitzeaz gain, proiektuak Artazako parkea eta Artaza-Romo institutuko patioaren zati bat suntsituko lituzke. Ez da bermatzen oinezkoentzako loturarik Antigo Golf eta Artaza eremuen artean.**



Artaza parkearen zati bat suntsituko luke proiektuak. Obrak gutxienez 6 urtez luzatzea aurreikusten da.

**E**H Bildutik oso kritiko agertu gara Foru Aldundiak bultzatu nahi duen itsasadar azpiko tunelaren aurreproiektuarekin. Tunel hau Supersurraren bigarren fasearekin lotzen dute, eta 400 milioi baino gehiagoko aurrekontua izango du, gailkostuak kontuan hartu gabe. «Inbertsio» hau ez dago inola ere justifikatuta: proiektu faraoniko zaharkitua da, auto pribatuen erabilera bultzatzen du eta eragin kaltegarriak izan ditzake inguruko auzokideengan.

EH Bilduren ustez, beraz, proiektua ez da beharrezkoa, kostu neurrigabea du eta ingurumenean eragin handia du. Bestelako lehentasunak ditugu: metroaren ibilbidea lurperatzea, garraio publikoa indartzea eta abar.

## Getxobusa, errealitate izatetik gertu

**U**rteetako presioaren ondoren, badirudi inoiz baino gertuago dugula Getxobusa. Uztaileko osoko bilkuran EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen, Getxoko auzo ezberdinak lotuko dituen herri-busa martxan jartzea eskatuz. Osoko bilkurak gure proposamena onartu zuen, eta, beraz, Udalak azterketa teknikoa egingo du eta proba pilotu modura martxan jarriko da.

Gure ustez, ezinbestekoa da zerbitzu hau martxan jartzea lehenbailehen, Getxoko auzo ezberdinak lotzeko: Andra Mari, Zubileta, Fadura... zerbitzu ezberdinekin (osasun-zentro, metro geltoki, hondartza eta abar). Presioa egiten jarraituko dugu errealitate bihurtu arte!

## Preocupación en Artaza por las consecuencias del túnel subfluvial

**Además del aumento del tráfico y del ruido, el proyecto destruiría parte del parque de Artaza y del patio del instituto. Tampoco se garantiza la conexión peatonal en la zona del Antigo Golf.**

**D**esde EH Bildu nos mostramos muy críticos con el proyecto de túnel subfluvial impulsado por la Diputación. El proyecto se encuentra en fase de redacción y se prevé que cuente con un presupuesto superior a los 400 millones de euros (sin contar los sobrecostes, claro). No está justificada de ningún modo tal inversión: se trata de un proyecto faraónico desfasado, innecesario, con un coste desmedido y con un grave impacto ambiental. Con la inversión que plantea la Diputación podrían ejecutarse otros proyectos más necesarios, como el soterramiento del trazado del metro en Getxo, impulsar el transporte público, etc.



## El Getxobus, cada vez más cerca

**D**espués de años de presión, la puesta en marcha del Getxobus podría estar más cerca que nunca. El pleno de julio aprobó una moción de EH Bildu en la que solicitábamos la puesta en marcha de este servicio. De este modo, el Ayuntamiento se compromete a poner en marcha este servicio como prueba piloto, y atender las necesidades de los vecinos y vecinas de los barrios.

A nuestro juicio, resulta indispensable poner en marcha este servicio lo antes posible, uniendo los diferentes barrios: Andra Mari, Zubileta, Fadura... con diferentes servicios como ambulatorios, estaciones de metro, playas, etc. ¡Seguiremos presionando!



EH Bilduren  
ordezkariak  
Getxoko Udalean

Eleder Barañano Mentxaka | Oihane Zelaia Calderón | Mikel Bidosola Agirregomezkorta | Ane Larrakoetxea Vivar | Ibon Rodríguez Larrinaga | Olaia Bilbao Onandia

## Aukera berriak Getxoko Udalean

**M**aiatzaren 28ko hauteskondeek Hego Euskal Herriko eszenatoki politikoa aldatu zuten. EH Bildu lehen indar politiko munizipalista bihurtu da, eta inoizko emaitzarik onenak lortu ditugu. Getxon ere markak hautsi ditugu: 4 zinegotzi izatetik 6 zinegotzi izatera igaro gara, eta gure herriko hainbat zonaldean (Algorta eta Romoko erdiguneak, Malakate...) lehen indarra izan gara. Eskerrik asko bihotzez denoi! Hauteskondeek bestelako ondorioa utzi zuten Getxon ere: auzokideek EAJ-PSEren Udal Gobernuak zigortu zuten, eta horrek gehiengo absolutua galtzea ekarri die (25 zinegotzitik 12 dituzte orain). Aurrerantzean, beraz, beharrezkoa izango dute beste indar politiko batzuen babesa gehiengo absolutu horretara heltzeko: edo EH Bildu (6), edo PP (6) edo Elkarrekin Podemos (1). Momentuz badirudi Udal Gobernuak PP aukeratu duela bidelagun modura. Hala ikusi genuen politikarien soldatak eta liberazioak adosteko orduan. Ikusiko dugu zein den Udal Gobernuaren jarrera aurrerantzean, udal aurrekontuen edo HAPO berriaren onarpenaren kasuan, esate baterako. EH Bildutik argi diogu: prest gaude negoziatzeko eta akordioak lortzeko, getxoztarron beharrianak erdigunean jartzen baldin baditugu.

## Nuevas oportunidades en el Ayuntamiento

**L**as elecciones del 28 de mayo cambiaron el panorama político de Hego Euskal Herria. EH Bildu se ha convertido en la primera fuerza municipalista de Euskal Herria, obteniendo los mejores resultados de su historia. En Getxo también batimos récords: hemos pasado de 4 a 6 concejales/as, y en varias zonas (centros de Algorta y Romo, Malakate...) fuimos la primera fuerza. La situación política también ha cambiado en nuestro pueblo: el gobierno municipal de PNV y PSE ha perdido la mayoría absoluta (ahora cuentan con 12 representantes de 25). En adelante, por tanto, necesitarán el apoyo de otras fuerzas políticas para llegar a esa mayoría absoluta: o EH Bildu (6) o el PP (6) o Elkarrekin Podemos (1). De momento parece que el Gobierno municipal ha elegido al PP como compañero de viaje. Así lo demostraron a la hora de aprobar los sueldos y liberaciones de los/as políticos/as. Veremos cuál es la actitud del Gobierno Municipal en adelante, por ejemplo en el caso de los presupuestos municipales o de la aprobación del nuevo PGOU. Desde EH Bildu lo decimos claro: estamos dispuestas a negociar y a llegar a acuerdos, con actitud constructiva, pero teniendo siempre como prioridad las necesidades de los y las getxoztarras.

Manifestazio  
Nazionala  
Azaroak 18  
Bilbo

ehbildu



NAZIOA  
GARA.